

BASILIO IZAGIRRE

"Kontzentrazioa ezinbestekoa da"

IA 5 URTE DIRA ERMUAN BETI ONDO ARKU JAURTIKETAKO TALDEA SORTU ZELA. OSO HEDATUA DAGOEN KIROLA EZ DEN ARREN, GEROZ ETA ZALETU GEHIAGO DITUEN KIROL JARDUERA DA ETA GURE INGURUKO HERRIETAN ERE, BADIRA HORRELAKO TALDEAK. ERMUKO TALDEKO LEHENDAKARI DEN BASILIO IZAGIRREREKIN IZAN GARA, BERAIEI JARDUERAREN BERRI ZERBAIT GEHIAGO JAKIN NAHIAN.

- *Noiz eratu zenuten arku jaurtiketa taldea?*

2000. urtean izan zen. Kirol jarduera honekiko zaletasuna genuen jende talde bat batu ginen eta horrela eratu zen.

- *Zenbat partaide dituzue?*


Une honetan guztira 17 kide gara. 13 eta 15 urte bitarteko 8 gazte dauzkagu eta beste guztiak nagusiagoak gara.

- *Astean zehar batzen zarete...*

Astean 3 aldiz batzen gara. Astelehen, asteazken eta ostegunetan. Gazteekin asteazkenetan eta beste bietan nagusiok bil-tzen gara.

- *Non elkartzen zarete?*

Hasierako urtean Migel Unamuno El-



kargunean egon ginen baina ondoren, Anaitasuna Ikastolak, txoko eder bat laga zigun eta han elkartzen gara azken urteotan. Bene-benetan eskertu nahi dut eman dizkiguten errezetasunengaitik.

- *Herritik kanpora txapelketetan parte hartzen duzue?*

Elgoibar, Zaldibar,...inguruko herrietan badira gurea bezalako taldeak eta haiekin ere lehiatzen gara. Horrez gain, izaten dira beste herri batzuetan ere txapelketak eta joaten gara.

- *Ermuan bertan ere egin izan dituzue...*

Santixauetan beti egiten dugu erakustaldiren bat, Kardenal Orbe enparantzan. Gure jarduera jendeari hurbiltzeko. Horrez gain, iaz "Beti Ondoko liga" eratu genuen. inguruko herrietatik etorri ziren jaurtitzaleak eta oso erantzun ona izan zuen. Aurten tamalez, diru laguntza eskara berandu egin dugu eta ez dugu halako gauzarik egiteko aukerarik izango.

- *Arku jaurtiketarako zein dohai behar dira?*

Batez ere kontzentrazioa. 30-90 metro bitarteko jaurtiketa egin behar da eta buruak lasai egon behar du. Horrez gain, ikusmena eta oreka ere oso garrantzitsuak dira. Dena den, gauza hauek ekinaren bitartez ere landu daitezke.

- *Joko arriskutsua da?*

Erabiltzen ditugun geziek gizaki baten gorputza alderik alde zeharka dezakete. Hori dela eta, segurtasun neurriak hartzen ditugu eta arauak ezarri. Kontu handiz ibili beharra dago. Hortan zehaztasunez jokatzeko dugu.

- *Besterik?*

Ateak irekita ditugula edozeinek gura etorri nahi badu eta Ikastolak Ongarain duen txoko honetan aurkituko gaituztela astelehen, asteazken edo ostegunetan, arratsaldeko 7etatik 9etara.

Asier Ibaibarriaga

MALLA



ileapaindegia

